



TOLOSAKO UDALA

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA

LEHEN BALDINTZA. Xedea eta kalifikazioa

Kontratuaren xedea da arlo hauetan aholkularitza- eta lankidetzaz-zerbitzua ematea:

-Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako sarreraren bilketa exekutiboa, trafikoko zigorrak izan ezik.

-Trafikoko zigorren kudeaketa osoa: trafikoko zigorren tramitazio-zerbitzua eta ondorengo bilketa, borondatezko aldi eta aldi exekutiboan.

Kontratuan sartzen dira laguntza teknikoa eta babesa emateko eta praktikoki gauzatzeko beharrezko jotzen diren eginkizun guztiak, bai prozedura administratiboa izapidetzerakoan bai aldi exekutiboan zorrak berreskuratzeko ahalmena hobetzeko xedea duten aplikazio teknikoak erabiltzerakoan.

Kontratuaren xedetik kanpo geratzen dira agintea erabiltzea eskatzen duten jardunak.

Zehazten den kontratuak, zerbitzuetako kontratu administratiboaren kalifikazioa dauka, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 10. artikulua ezarritakoarekin bat etorriz.



TOLOSAKO UDALA

BIGARREN BALDINTZA. Hautaketa eta esleipena egiteko prozedura

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, eta interesa duen enpresari orok aurkeztu ahal izango du proposamena prozedura horretara. Kontratuaren baldintzak ezingo dira negoziatu, hala zehazten baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157. artikulua.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik onena zehazteko, hainbat irizpide edukiko dira kontuan. Irizpide horiek kontratuaren helburuari zuzenean atxikitakoak izango dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150. artikuluan eta Plegu honetako bederatzigarren baldintzan zehaztutakoarekin bat etorriz.

HIRUGARREN BALDINTZA. Kontratatzailearen profila

Udal honek Kontratatzailearen Profila dauka, bere kontratu-jardueraren gaineko informazioen gardentasuna eta hura herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, beste edozein publizitate baliabide erabiltzeari kalterik egin gabe. Hurrengo web-orri honetan arautzen diren zehaztapenen arabera ikusi ahal izango dute interesdunek profil hori: www.tolosa.eus



TOLOSAKO UDALA

LAUGARREN BALDINTZA. Kontratuaren zenbatekoa

Enpresa esleipendunak bildutako diru-sarreraren arabera izango da kontratu honen zenbatekoa.

Lizitatuzaileak kontratuaren prezioa kalkulatzeko modua izan dezan, hauek dira azken ekitaldietan eginiko diru-bilketen datuak:

Kobratutako nagusia	2013	2014
Bilketa exekutiboa, trafikoko zigorrak izan ezik	295.791,35	267.991,48
Trafikoko zigorrak borondatezko epean	104.627,30	123.149,40
Trafikoko zigorrak epe exekutiboan	131.042,65	128.788,28

Enpresa esleipendunak honako ehuneko hauek jasoko ditu:

-Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako sarreraren bilketa exekutiboagatik, trafikoko zigorrak izan ezik: bilketa efektiboaren nagusiaren (BEZ kanpo) %18.

-Trafikoko zigorren kudeaketa integralagatik: trafikoko zigorren bilketaren nagusiaren (BEZ kanpo) %42.

Enbargatzeen ondorioz sortutako kostuak eta gastuak kontratua eskuratzen duen enpresak hartuko ditu bere gain.

Errekargu, berandutze-interes eta bestelako kontzeptuengatik eskuratutako diru-sarrera guztiak Udalarentzat izango dira.

Lizitatuzaileek beherantz hobetu ahal izango dituzte ehuneko horiek, eta, aldiz, ezarritako ehunekoak gainditzen dituzten eskaintzak ez dira baliozkoak izango.



TOLOSAKO UDALA

Ondorio guztietarako, ulertuko da eskaintzetan sartuta daudela kontratatutako prestazioak betetzeko enpresak egin behar dituen gastu guztiak, trafiko-isunak kudeatzeko Posta-zerbitzuan egin beharreko gastuak izan ezik.

Udalaren 2015. urteko aurrekontuko 1 0200.227.09.931.00 partidaren kontura ordainduko da kontratuaren zenbatekoa.

Badago nahikoa diru kontraturako aurreikusitako kostua ordaintzeko. Hala ere, 1 0200.227.09.931.00 partida handitu egin daiteke, isunetatik (391.01) eta premiamendu-errekarguetatik (392.01) egiaz bildutako diruaren arabera. Alde horretatik, Udalak konpromisoa hartzen du kontratuaren ondorioz sortutako betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko beharrezkoak diren kredituak esleitzeko, horretarako kredituak handituta.

Organo eskudunak kontratuaren ondorioz sortutako gastuari aurre egiteko beharrezkoa den kreditua esleituko du urtero datozen urteetako ekitaldietan, kontratua indarrean den denboran.

BOSGARREN BALDINTZA. Kontratuaren iraupena

Kontratuaren iraupena hiru urtekoa izango da, 2015eko urriaren 22tik 2018ko urriaren 21era arte hain zuzen, eta Udaleko Gobernu Batzordeak beste urtebetez luzatu ahal izango du.



TOLOSAKO UDALA

SEIGARREN BALDINTZA. Kontratatzeke gaitasuna egiaztatzea

Pertsona natural edo juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratua hitzartzeko inolako debekurik ez badute eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.

1. Enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da:

a) Enpresariak pertsona juridikoak badira, honako agiri hauetakoren baten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna: eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauen arabera arautzen diren adierazi beharko dute, eta, beharrezkoa bada, pertsona juridiko motaren arabera, behar den moduan inskribatuta egon beharko dute dagokion erregistro publikoan.

b) Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren enpresarien jarduteko ahalmena egiaztatzeke, bizi diren Estatuko legediaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo bestela, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen arabera zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez.

c) Atzerriko gainerako enpresariak enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo Kotsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeke.

d) Pertsona fisikoak diren enpresariak lizitatzailaren edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeke. Beste pertsona baten izenean jarduten badute, gainera, ahalorde askietsia ere gehitu beharko dute.



TOLOSAKO UDALA

2. Enpresariak frogatu egin behar dute ez dutela kontratatzen debekurik. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan zehazten da zer baldintzatan duten debekatuta enpresariak kontratatzea. Baldintza hori frogatzeko, honako aukera hauek dituzte:

a) Testigantza judicial edo administrazioko ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute, kasuaren arabera; agiri hori erakunde eskudunak jaulki ezin duenean, berriz, administrazioko autoritate, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emandako erantzukizunpeko aitorten batekin ordezkatu ahalko dute.

b) Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresak direnean eta aukera hori dagokion Estatuko legerian aurreikusita dagoenean, autoritate judicial baten aurrean emandako erantzukizunpeko aitorten batekin ere ordezkatu ahalko dute frogagiri hori.

3. Enpresariaren kaudimena:

3.1 Enpresariak agiri hauen bidez egiazta dezakete kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:

a) Laneko arriskuen kalte-ordainak ordaintzeko aseguruia (300.000 euroko zenbatekoa babesteko) badutela egiaztatuko duen agiria.

b) Merkataritza Erregistroan edo dagokion Erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak, azken ekitaldiari dagozkionak. Erregistro ofizialetan kontuak aurkezteko betebeharra ez duten enpresariak beste aukera bat dute kaudimena egiaztatzeko: behar den bezala legeztatutako kontabilitate-liburuak aurkeztea, hain zuzen.

3.2. Enpresariak agiri hauek balia ditzakete gaitasun teknikoa egiaztatzeko:



TOLOSAKO UDALA

a) Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuen zerrenda. Zerrendan datu hauek jaso behar dituzte: lan eta zerbitzu horien ordainaren zenbatekoa, data eta hartzailea zein izan den (publikoa zein pribatua). Hartzailea sektore publikoko entitate bat izanez gero, horretarako eskumena duen organoak egindako ziurtagiria aurkeztu behar dute enpresariak, egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko; hartzailea subjektu pribatua izanez gero, hark egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Eta ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitortpena aurkeztu behar dute. Horrela badagokio, kontratazio-organoak zuzenean helaraziko dizkio ziurtagiri horiek eskumena duen aginteari.

Alde horretatik, azken hiru urteetan Udaletan eta arlo horretan zerbitzua eman eta esperientzia egiaztatzen duten enpresak baino ez dira onartuko.

b) Kontratuko zereginetan jardungo duten langileak zein izango diren, bereziki zerbitzua zuzentzeko eta antolatzeko ardura izango dutenak.

c) Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak eta, bereziki, kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileenak.

d) Enpresaren urteko batez besteko langile kopuruari eta zuzendaritzako langileen azken hiru urteetako garrantziari buruzko adierazpena, hori egiaztatzeko agiriekin batera.

e) Lanak egiteko edo prestazioak emateko erabiliko dituen material eta ekipo teknikoari buruzko adierazpena, horiei loturiko egiaztagiria atxikita.



TOLOSAKO UDALA

ZAZPIGARREN BALDINTZA. Eskaintzak eta administrazio arloko agiriak aurkeztea

Eskaintzak Tolosako Udaletxean aurkeztuko dira (Plaza Zaharra, 6 A) bulegoko orduetan (9:00etatik 14:00etara) eta 15 laneguneko epean, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Proposamenak posta bidez, telefax bidez edo bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez aurkeztu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein tokitan.

Eskaintzak posta bidez bidaliz gero, enpresariak justifikatu egin beharko du postako bulegoan bidalketa noiz egin duen eta egun berean adierazi beharko dio kontratazio-organoari telex edo telegrama bidez eskaintza bidali duela, espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen titulu osoa eta hautagaiaren izena idatziz jasota.

Udal-idazkariak telex, fax edo telegrama horretan egindako diligentzia bidez egiaztatuko da aipatutako agiria jaso izana. Bi baldintza horiek bete ezean, eta proposamena kontratazio-organoak lizitazio-iragarkian zehaztutako epea amaitu ondoren jasoz gero, ez da eskaintza hori onartuko. Edozein kasutan, aipatutako epea amaitu eta hamar egunera dokumentaziorik jaso ez bada, ez da onartuko.

Proiektua aurkezteko erabil daitezkeen baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoek, aipatutakoez gain, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen du azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak ere bete behar dituzte.



TOLOSAKO UDALA

Lizitatzailerik bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean ezingo du, beste batzuekin batera aldi baterako enpresa batasunik sortu, baldin eta bakarka aurkeztu bada berea, edota aldi baterako enpresaren batean agertzen bada. Arau hauek hausten dituenari atzera botako zaizkio hark izenpetutako eskaintza guztiak.

Proposamena aurkezteak esan nahi du enpresariak baldintzarik gabe onartzen dituela agiri honetako klausulak.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak, hiru kartazal itxitan aurkeztuko ditu enpresariak, gutun-azal horiek sinatuta eta enpresaren egoitza adierazita, jakinarazpenak egin ahal izateko. Orobat, kartazal bakoitzaren izenburua eta honako goiburu hau ere adieraziko ditu: «Zergen eta, trafiko-isunak izan ezik, zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen bilketa exekutiborako eta trafikoko isunen kudeaketa osorako (hor sartzen da trafikoko isunen izapidetze-zerbitzua eta isun horien diru-bilketa borondatezko aldi eta aldi exekutiboan) aholkularitza- eta lankidetzaz-zerbitzuaren kontratazioan lizitatzeko proposamena». Honako hau da kartazalen izenburua:

—«A» Kartazala: Administrazioako agiriak.

—«B» Kartazala: Proposamen ekonomikoa eta era automatikoki kuantifikatu daitezkeen dokumentazioa.

—«C» Kartazala: Balio-judizioen arabera aztertutako behar den dokumentazioa.

Kartazal bakoitzean aurkeztu beharreko agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo kopia kaitatuak, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik.

Kartazal bakoitzaren barruan ondorengo agiriak eta horien zerrenda zehazkiak aurkeztu beharko dituzte lizitatzailerik:



TOLOSAKO UDALA

«A» KARTAZALA
ADMINISTRAZIOKO AGIRIAK

a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatuko duten agiriak.

B) Ordezkaritza egiaztatuko duten agiriak.

— Beste baten izenean jarduten dutenek edota eskaintzak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, notariotzako ahalordearen kopia bat aurkeztu behar dute, udal-idazkariak askietsitakoa.

— Lizitatzailerak pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du, baldin eta legez eska badaiteke.

— Era berean, ordezkaritzarako ahalorde askietsia duen pertsonak bere Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo agiri horren notariotzako lekukotza aurkeztu behar du.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen du azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan kontratua hitzartzeko zehazten diren debekuetako bat bera ere ez duela ziurtatuko duena.

Aitorpen horretan berriaz adieraziko da hautagaia egunean dagoela indarrean dauden legeek xedatzen dituzten zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan. Nolanahi dela ere, behin betiko esleipena egin aurretik, baldintza hori egiaztatuko duten agiriak aurkeztu beharko ditu enpresariak, Udalak horrela eskatuz gero.

d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatuko duten agiriak.



TOLOSAKO UDALA

e) Horrela badagokio, posta elektronikoaren helbidea, jakinarazpenak egin ahal izateko.

f) Atzerriko enpresek adierazpen bat aurkeztu behar dute Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla ziurtatzeko, kontratua dela-eta, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, horrela badagokio, uko egin behar diote lizitatzailleak izan dezakeen atzerriko jurisdikzio-foroari.

«B» KARTAZALA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ERA AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA.

a) Proposamen ekonomikoa.

Eredu honen arabera aurkeztuko da:

«Nik, _____ jaunak/andreak (jakinarazpenetarako helbidea: _____, _____, kalea; NAN zk.: _____), _____ entitatearen ordezkari gisa (IFK: _____), adierazten dut _____ zerbitzua kontratatzeko espedientearen berri jakin dudala, badakidala kontratu hori prozedura irekiaren bidez esleituko dela, eskaintza ekonomikoa onena eta esleitzeko hainbat irizpide aintzat hartuta, eta Probintziako Aldizkari Ofizialean, (zka.:____, data: _____) eta Kontratatzailean Profileen iragarri dela; orobat, adierazten dut badudala kontratua arautzen duten baldintzen agiriaren berri eta oso-osorik onartzen dudala. Eta, horrekin guztiarekin bat etorritz, lizitazioan parte hartzen dut eta konpromisoa hartzen dut kontratuaren xedea betetzeko, honako prezio honetan:

- ❖ ----Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako sarreraren bilketa exekutiboaren nagusiaren %---- (BEZ gabe), trafikoko zigorrak izan ezik.



TOLOSAKO UDALA

- ❖ -----Trafikoko zigorreatatik bildutako zenbatekoaren (BEZ kanpo) % ----.

_____n, 20 __ko _____ ren __ a.

Lizitatzaillearen sinadura,

Izpta.: _____».

Horrez gain, zerbitzuaren kudeaketarako aurreikusitako gastuen azterketa ekonomiko zehatza gehituko da, aurkeztutako eskaintza sostengatzeko.

b) Prezioaz aparte, beste balorazio-irizpide batzuei buruzko agiriak, modu automatikoan kuantifikatu beharrekoak.

«C» KARTAZALA

BALIO JUDIZIOEN ARABERA AZTERTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

Lan Plangintzaren memoria nagusia.

Honako datu hauek zehaztuko dira: zerbitzua nola emango den, zer epetan ezartzea aurreikusten den eta zer baliabide material eta giza baliabide bideratuko diren zerbitzura. Era berean, esleipendunak erabiliko duen informatika-programaren ezaugarriak zehaztuko dira, batez ere datuen migrazioarako IZFE programarekin bateragarria den ala ez, eta, azkenik, zuzenean zerbitzuan jardungo duten langileen izen-abizenak.



TOLOSAKO UDALA

ZORTZIGARREN BALDINTZA. Esleipenerako irizpideak

Proposamenak baloratzeko eta ekonomikoki eskaintza onena zein den zehazteko, hainbat esleipen-irizpide hartuko dira aintzat.

A.-Automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak:

1.-Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu arte

- Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako sarreraren bilketa exekutiboaren ehunekoa, trafikoko zigorraren izan ezik: 0 eta 15 puntu artean. Lizitazioko prezioarekiko %1eko beherapena egiten den bakoitzeko 5 puntu emango dira.

- Trafikoko zigorren kudeaketa osoaren bidez borondatezko aldiak eta aldi exekutiboan bildutakoaren ehunekoa: 0 eta 35 puntu artean. Lizitazioko prezioarekiko %1eko beherapena egiten den bakoitzeko 5 puntu emango dira.

2.-Berdintasuna: 5 puntu arte

Enpresan emakumeen sustapenerako ziurtagiriak dituzten enpresen eskaintzei 5 puntu emango zaizkie. Balioko duten ziurtagiriak hauek dira: Enpresako Berdintasun Bereizgarria, Estatuko Gobernuak sustatzen duena edo "Emakunde" Emakumearen Euskal Erakundeak ematen duena.

Berdintasun ziurtagirik ez duten enpresen eskaintzei ez zaie punturik emango.



TOLOSAKO UDALA

B.-Balio-judizioen arabera aztertzea eskatzen duten irizpideak:

-Laneko Planaren Memoria, 0 eta 45 puntu artean:

Modu honetara baloratuko da:

- zerbitzua emateko modua: gehienez ere 10 puntu
- zerbitzua ezartzeko aurreikusitako epea: gehienez ere 10 puntu
- zerbitzura atxikitako baliabide materialak eta giza baliabideak: gehienez ere 10 puntu
- esleipendunak erabiliko duen informatika-programaren ezaugarriak, batez ere datuen migrazioarako IZFE programarekin bateragarria den ala ez: gehienez ere 15 puntu.

BEDERATZIGARREN BALDINTZA. Kontratazio-mahaia

Kontratazio-mahaiko buru udalbatzako kideren bat edo funtzionarioen bat izango da eta idazkari lanak udalbatzako funtzionario batek egingo ditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen du azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bigarren xedapen gehigarriaren 10. puntuan ezarritakoaren arabera, eta aipatutako azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.2 artikuluekin bat etorritik. Era berean, gutxienez lau mahaikidek osatuko dute mahai hori: udalbatzako idazkariak –edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularrak–; udalbatzako kontu-hartzaileak; bai eta, karrerako funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean aukeratuta, kontratazio-organoak izendatzen dituen beste mahaikide batzuek.



TOLOSAKO UDALA

Ondorengo hauek izango dira kontratazio-mahaiko kide:

- Alkatea edo hark eskuordetutako pertsona.
- Udal idazkaria edo hark eskuordetutako pertsona.
- Udaleko kontu-hartzailea edo hark eskuordetutako pertsona.
- Administrazio Orokorreko teknikaria
- Errentetako teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona, mahaikide (Mahaiko idazkari ere izango da).

HAMARGARREN BALDINTZA. Administrazioaren eskumenak

Kontratazio-organoak eskumen hauek ditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 210. artikulua araberak:

- a) Kontratua interpretatzekoa.
- b) Kontratua betetzeari loturik sor daitezkeen zalantzak ebaztekoa.
- c) Kontratua aldatzekoa, interes publikoko arrazoiak tarteko badira.
- d) Kontratua bertan behera uztekoa eta erabaki horren ondorioak zehaztekoa.

Betiere kontratistari entzun egingo zaio esateko daukana, eta, horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 211. artikuluan aurreikusitako izapideei jarraitu beharko zaie.



TOLOSAKO UDALA

HAMAIKAGARREN BALDINTZA. Proposamenak irekitzea

Kontratazio-mahaia proposamenak aurkezteko epea amaitu eta handik lau egun baliodunetara eratuko da. Ondoren, «A» Kartazalak irekiko ditu eta haietan jasotako administrazioko agiriak kalifikatuko ditu.

Beharrezkoa balitz, Mahaiak hiru eguneko epea emango du (gehienez), lizitatzailleek aukera izan dezaten aurkeztutako agirietan atzemandako akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko, betiere zuzentzeko modukoak badira.

Ondoren, «C» kartazalak ireki eta aztertuko ditu; epaitzeko balio-judizioaren bat behar duten irizpideak jasotzen dira kartazal horietan.

Proposamenak irakurri ondoren, Mahaiak beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu haiek balioesteko, baldintzen agiri honetan ezarritako irizpide eta haztapenak aintzat hartuta.

HAMABIGARREN BALDINTZA. Dokumentazioa eskatzea

Kontratazio-mahaia berriro elkartu ondoren, balio-judiziopeko irizpideei atxikitako haztapenaren berri emango da. Jarraian «B» kartazalak irekiko dira.

Balio-judizioen arabera aztertu beharreko irizpideen balorazioa («C» kartazala) eta modu automatikoan haztatutako irizpideena («B» kartazala) aintzat hartuta, Kontratazio-mahaiak kontratuaren behin-behineko esleipenduna nor izango den proposatuko du.



TOLOSAKO UDALA

Kontratazio-organoak, ekonomikoki eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko dio hamar egun baliaduneko epean (errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita) zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuta dituela egiaztatuko duten frogagiriak aurkez ditzala, edo kontratazio-organoari baimena eman diezaiola, eskatutakoa egiaztatuko duten agiriak zuzenean eskuratzeko. Orobat, kontratua gauzatzeko erabiliko eta bideratuko dituen bitartekoak egiazki dituela egiaztatuko duten frogagiriak ere eskatuko dizkio, beti ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen du azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 64.2 artikuluekin bat etorriz. Azkenik, egoki den behin betiko bermea eratu izanaren agiriak ere eskatuko dizkio kontratazio-organoak lizitatzailari.

HAMAIRUGARREN BALDINTZA. Behin betiko bermea

Ekonomikoki eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzailak, esleipenaren zenbatekoaren %5eko bermea jarri izana egiaztatu beharko du, Balio erantsiaren gaineko Zerga kenduta.

Berme hori modu hauetakoren batean ordaindu ahal izango du:

a) Dirutan edota Zor Publikoko baloretan, kasu bakoitzean, Lege honen garapeneko arauetan ezarritako baldintzak betez. Dirua, eta jasotako baloreen ibilgetzearen ziurtagiriak Gordailuen Kutxa Orokorrean utziko dira, edo, Ekonomia eta Ogasuneko Ordezkaritzaren sukurtsaletan, Autonomia Erkidegoetako Kutxetan edo establezimendu publiko baliokidetan, edo ondorioak izan behar dituzten Tokiko Erakunde Kontratugileetan, Lege honen garapeneko arauetan ezarritako era eta baldintzetan.



TOLOSAKO UDALA

b) Espainian jarduteko baimena duten banku, kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-erakunde eta elkarrekiko bermeko elkarteren batek Lege honen garapeneko arauetan ezarritako era eta baldintzetan emandako abalaren bitartez; abal hori aurreko a) letran adierazi diren establezimenduetan utzi beharko du esleipendunak.

c) Sektorean jarduteko baimena duen aseguru-etxe batekin egindako kauzio-aseguruko kontratu baten bitartez. Aseguruaren ziurtagiria, aurreko a) letran adierazitako establezimenduetan utzi beharko du esleipendunak.

Bermea ez da itzuliko edo bertan behera utziko bermearen epea iraungi eta kontratua behar bezala bete arte.

Berme horrek, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen du azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 100. artikuluan jasotako kontzeptuak beteko ditu.

HAMALAU GARREN BALDINTZA. Kontratua esleitzea

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak kontratua esleitu beharko du, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost laneguneko epean.

Ezingo da lizitazioa hutsik utzi, baldintzen agiri honetan aipatzen diren irizpideekin bat etorritik onargarria den eskaintzarik edo proposamenik baldin badago.



TOLOSAKO UDALA

Esleipena arrazoitu egingo da, hautagai edo lizitatzaileri jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kanpoan geratu diren lizitatzailerek edo baztertutako hautagaiek esleipenaren erabakiaren aurka behar beste arrazoitutako errekurtsioa aurkezteko behar duten informazioa jasoko da betiere jakinarazpen horretan. Eta bereziki honako alderdi hauek adieraziko dira:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, beren hautagaitza baztertu izanaren arrazoiak azalpen laburra.
- Esleipen-prozeduratik kanpo utzi diren lizitatzaileri dagokienez, beren eskaintza onartu ez izanaren arrazoiak, era laburrean.
- Edozein kasutan, esleipendunaren izena, hautatua izan den esleipendunaren proposamenean jasota dauden eta hautaketarako erabakigarriak izan diren ezaugarriak eta abantailak; hau da, eskaintzak onartu zaizkien gainerako lizitatzaileren proposamenekin alderatuta zer alderdi lehenetsi diren.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean, kontratua zer epetan formalizatuko den adieraziko da.

HAMABOSGARREN BALDINTZA. Kontratua formalizatzea

Kontratua administrazio-agirian formalizatuko da, behin betiko esleipena jakinarazi eta hurrengo hamar lanegunetan. Agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotara sartzeko.



TOLOSAKO UDALA

Kontratatik kontratua eskritura publikoan jaso dadila eskatu ahal izango du, sortutako gastuak bere kontura izanik.

HAMASEIGARREN BALDINTZA. Esleipendunaren eskubideak eta betebeharrak

Kontratua gauzatzeko, baldintzetan eta agiri honetan dauden klausulak bete beharko dira, bai eta kontratazio-organoak kontratistari haiek interpretatzeko eman dizkion jarraibideak ere.

Kontratista izango da egindako lanen kalitate teknikoaren erantzule, baita emandako prestazio eta zerbitzua ere. Era berean, kontratua betetzeko gertatutako ez-egite, akats, metodo desegoki eta ondorio okerren eraginez Administrazioari edo hirugarrenei eragindako kalteen edo ondorioen erantzule izango da.

Horiez gain, kontratatik betebeharrak zehatz hauek izango ditu:

— Kontratua burutzeko beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonal nahikoa atxiki eta bideratu beharko ditu (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen du azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 64.2 artikulua).

—Hauek izango dira zerbitzua emateko gutxienezko giza baliabideak:

—arduraduna-solaskidea, zuzenbidean lizentziatua eta zerga-bilketa prozedurari buruzko ezaguerak dituen, lanaldiaren gutxienez %50ean

—bilketa exekutiborako kudeatzailea, astean gutxienez 35 orduko lanaldian



TOLOSAKO UDALA

—trafikoko zigorren kudeatzailea, astean gutxienez 35 orduko lanaldian

— Kontratua betetzera atxikitako pertsonak zerbitzua zuzen emateko beharrezkoa den euskara-maila eduki beharko dute.

— Kontratatari egotz dakizkiokeen gastuak. Kontratatariak ordaindu beharko ditu lizitazioko eta esleipeneko iragarkien gastuak eta zergak, bai eta aplikatzekoak diren bestelakoak ere, indarrean diren legezko xedapenen arabera eta horietan zehaztutako moduan eta zenbatekoan.

— Lan-legeriaren arloan, Gizarte Segurantzaren, hitzarmen kolektiboetan, laneko segurtasun eta higienaren ordenantza nagusian eta zerga-arloan indarrean diren xedapenak bete behar ditu kontratatariak, eta udalak eta lanen zuzendaritzak ez dute inolako erantzukizunik izango xedapen horiek ez betetzearen ondorioz sor daitezkeen ardurak direla-eta.

— Kontratatariak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela ziurtatuko duten agiriak aurkeztu beharko ditu urtero.

— Tolosako Udaleko Euskara eta Berdintasuneko Ordenantzak bete beharko ditu kontratatariak.

— Udalak diru-sarrerak itzultzen badizkio kontratatari, honek bueltatu egin beharko du diru-sarrera horiengatik jasotako ordainsarien zatia.

— Kontratatariak Gipuzkoako bulegoetako hitzarmen probintzialaren azken hitzarmena eta, horrela badagokio, horren eguneraketak aplikatuko dizkie kontratua betetzen jardungo duten langileei.



TOLOSAKO UDALA

Kontratuaren ondorioetarako subrogatutako langileen baldintzak gutxienez gaur egun indarrean daudenak izango dira, baldin eta baldintza horiek aipatutako hitzarmenean jasotakoak baino hobeak badira.

Era berean, edozein arrazoirengatik ordezkapenik eginez gero, ordezkapena egiten duen langileak ordezkatuaren baldintza berak izango ditu.

Bestelako kasuetan, langile berri guztiek kontratuari atxikitako gainerako langileen baldintza berak izango dituzte, betiere haien kategoria bera badute, eta baldintza horiek ez dira, inolaz ere, aurrez aipatutako hitzarmenean jasotakoak baino okerragoak izango.

— Enpresak edo erakunde kontratatzaileak ezingo dituzte, alde bakarreko erabakiz, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako lan-baldintzak behertu kontratuak irauten duen denboran.

— Enpresa esleipendunak derrigorrez subrogatu beharko ditu kontratatutako jardueran gutxienez sei hilabeteko antzintasuna bete eta horretan diharduten langileak, eta enpresari berria subrogatuta geratuko da laneko eskubide eta betebeharrak guztietan. I. eranskinean zehazten da subrogatu beharreko langileen zerrenda.

— Enpresa esleipendunak emakume eta gizonen arteko tratu-berdintasuna bermatu beharko du arlo hauetan guztietan: enplegua eskuratzerako aukeretan; sailkapena, iraunkortasuna eta prestakuntza profesionala bermatzerakoan; ordainsarrietan; laneko kalitate eta egonkortasunean eta lanaldiaren iraupen eta antolaketan, bai eta bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko aukera emango duten gainerako alderdietan ere.

— Enpresa esleipendunak ez du hizkuntza sexistarik erabiliko emandako agiri eta materialetan, eta honako balio hauetan oinarritutako irudia sustatu beharko du: berdintasuna, aniztasunarekiko eta rol-pluralitasunarekiko errespetua eta elkarrekiko erantzukizunaren aldeko apustua.



TOLOSAKO UDALA

— Enpresa esleipendunak lan-ingurune segurua ezarri eta bermatu beharko du, inolako sexu-jazarpenik eta sexua dela-eta inolako erasorik gerta ez dadin.

— Enpresa esleipendunak errespetatu egingo du beti ere herritarrek arreta euskaraz eta gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea, eta eskubide hori bermatuko du zerbitzua ematerakoan. Orobat, euskara lehenetsiko du erabileran, tipografian, idatzizko agirietan hizkuntza aukeratzekoan, etab.

Era berean, enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du enpresaren eta Administrazioaren edota herritarren arteko komunikazio, azterlan, kartel eta abarrak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko direla, eta Udalak bere komunikazioetan euskara gaztelaniaren gain lehenesteko dituen parametroak aurreikusi beharko ditu (letra-tipoa, tamaina, egokiera...).

— Esleipena eskuratu duen enpresak langile gehiago kontratatu behar baditu kontratua indarrean den denboran, bete behar duten lanpostuan beharrezkoa den euskara-maila eta ezaguera izatea eskatuko die. Era berean, lehenengo langileei dagokienez, enpresa esleipendunak beharrezko mekanismoak jarriko ditu martxan langile horiek beren lanpostuan beharrezkoa den euskara-maila eskura dezaten.

— Enpresa esleipendunak zinpeko deklarazioa aurkeztu beharko du ingurumenaren aurka jarduteagatik inolako zehapen administratibo edota penalik ez duela egiaztatzeko.

— Enpresa esleipendunak kontratatutako jarduera eta zereginetan jardungo duten langileen laneko segurtasuna eta osasuna bermatu beharko du lan horietan ari direnean.

— Enpresa esleipendunak Lan arloko organo eskudunaren zehapenen bat jasotzen badu zerbitzua ematerakoan laneko arriskuen prebentzioarekin loturiko arau-hauste larri edo oso larriren bat egiteagatik, kontratua bertan behera geratuko da berehala, eta enpresak ez du inolako kalte-ordain ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.



TOLOSAKO UDALA

— Esleipendunak gutxienez 8:00etatik 14:00etara eta astelehenetik ostiralera eman beharko du zerbitzua udaletxean bertan, langileak bertan direla.

HAMAZAZPIGARREN BALDINTZA. Prezioen berrikusketa

Kontratu honen prezioa ezin izango da berrikusi.

HEMEZORTZIGARREN BALDINTZA. Kontratua gauzatzea

Kontratua gauzatzekoan, baldintzen agiri honetan ezarritakoa bete beharko da, bai eta kontratazio-organoak kontratistari haiek interpretatzeko eman dizkion jarraibideak ere.

HEMERETZIGARREN BALDINTZA. Zigorak kontratua ez betetzeagatik

— Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua burutzeko epe osoa igarotakoan burutu gabe badu kontratua, Administrazioak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsiaraztea, edo eguneroko zigorak ezartzea proportzio honetan: kontratuaren prezio osoaren 1.000 euroko 0,20 euro.

Atzeratu izanagatik ezarritako zigorak kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak kontratua bertan behera utzi ahal izango du edo, bestela, hura betetzen jarraitzea adostu ahal izango du kontratistarekin, beste zigor batzuk ezarrita.



TOLOSAKO UDALA

— Kontratatik, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioen gauzatze partziala bete gabe utziz gero, Administrazioak bi aukera izango ditu: edo kontratua suntsitzea, edo lehen zehaztuta dauden zigorrak ezartzea.

— Kontratatik ez badu betetzen kontratuaren exekuziorako behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitze baldintza, kontratuaren aurrekontuaren %10eko zigorra jarriko zaio.

Zigorrak kontratazio-organoak erabakita ezarriko dira, kontratuaren arduradunak -halakorik izendatu bada- proposatuta. Zigorrak eta erabakiak berehala betetzekoak izango dira, eta kontratatari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduta jasoko dira zuzenean; edo, bestela, horrela dagokionean, jarritako bermetik, aipatutako ziurtagiri horietatik ezin badira kendu.

HOGEIGARREN BALDINTZA. Kontratua bertan behera uztea

Kontratua suntsitzeko arrazoiak honako xedapen hauetan daude jasota: baldintzen agiri honetan eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223. eta 308. artikuluetan (Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bategina onartzen du aipatutako Errege Dekretu Legegileak). Suntsipena kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz edo kontratatik eskatuta.

Kontratua kontratataren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea konfiskatu egingo zaio, eta, horrez gain, Administrazioari kalte-ordaina ordaindu beharko dio sortutako kalte eta galerengatik, baldin eta horiek bermearen zenbatekoa baino handiagoak badira.



TOLOSAKO UDALA

HOGETA BATGARREN BALDINTZA. Kontratuaren Araubide Juridikoa

Kontratu honek izaera administratiboa du eta bere prestaketa, esleipena, ondorioak eta iraungipena agiri honen xedapenen arabera arautuko dira. Bestalde, Plegu honek aurreikusten ez dituen alderdietan, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena aplikatuko da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honetan bi aldeen artean sortzen diren eztabaidak eta auziak ebazteko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 21.1 artikularekin bat etorritz.

Tolosa, 2015eko abuztuaren 5a

Alkatea



TOLOSAKO UDALA

I. ERANSKINA Subrogatu beharreko langileen zerrrenda

Kategoria	Altaren data	Antzintasuna	Kontratu mota	Dedikazioa	Soldata gordina
Lizentziatua (1)	2002/02/04	13 urte	Mugagabea	27,5 ordu astean	23.668,20
2.Ofiziala, administraria	2001/11/05	13 urte	Mugagabea	35 ordu astean	19.026,24
Administrari laguntzailea	2011/06/07	04 urte	Mugagabea	36 ordu astean	11.132,28

(1) Ez dauka Tolosako Udala lantoki gisa esleitua. Bertan, lanaldiaren %50a egiten du.